

## BALIO PROPOSAMENA

BIGOKA S.L : enpresa bitartekaria da, zenbait zerbitzu eskaintzen dituena, zer ikastea ez dakiten ikasleek enprekin kontaktatzeko aukera dute gure bitartez, eta epe labur batez enpresa horietan parte hartu ahal izateko aukera izango dute. Baina ez da eskaintzen dugun zerbitzu bakarra, unibertsitatera joatean praktikak egiteko eta espezializatzeko kurtsoak egiten ditugu. Internazionalki komunikatuta gaude eta ikasleengan jartzen dugu arreta guztia.

Kalitatezko zerbitzua da, enpresa ospetsuetan esperientzia izateko eta behin unibertsitatean izatean praktikak egiteko aukera eskaintzen dugu.

Balio kualitatiboa:

1. Ikasleen zalantzak zer ikasten argitzeko
2. Motibazioa eta kualifikazioa sustatuko dugu.



Besteengandik bereizten gaituena **berritasuna** da, orain arte ez delako ikusi enpresa bat ordaintzearen truke ikasleak enpresetara eramatea haien ideiak argitzeko. Gainera horrela ikasleek argiago izango dute haien etorkizunean non ikusi nahi duten haien burua.

Baita:

- Prezioa: kurtsoak kuotan kobratuko ditugu, beraz oso merkea eta ordaintzeko erraztasunekin.

-Pertsonalizazioa: ikasle bakoitzarentzat arlo espezializatua dago eta interesa duen enpresara joateko ahalbidetzen dugu.

- Eskuragarritasuna eta Erabilerraztasuna: gure web orriari esker ikasleek eta gurasoek oso erraz izango dute gurekin kontaktatzeko. Telefono zenbakia izango dugu dudaren bat badaukate; helbide elektronikoa eta telefono bitartez kontaktatu dezakete gurekin.

-Prestazioak:Produktu edo zerbitzu baten erabilera hobetzea da xede nagusia. Informatikaren sektorea, alegia, honako elementuan oinarritzen da, gero eta erabilera

gehiago dituzten ordenagailuak izango ditugu adibidez, web-kamerak izango ditugu eta baita txartel-irakurgailuak.

- Lana erraztea: Bezeroari zenbait lan egiteko erraztasuna ematen diogu; hau da, bezeroak aukeratuko duen kurtsoa edo pare bat egun joan nahi duen enpresari buruzko informazio guztia azalduko diogu.

-Diseinua: Berritasunei moldatzen gara, diseinu berria ekarriz. Gaur egungo egoerari moldatzen gara, teknologia berriak erabiliz.